



## **GATAZKA-MINERALAK ARAUTZEKO EKIMENAK AEBKO ETA EUROPAKO KASUAK**

**Azken urte hauetan, gatazka-mineralen gaia arautzen ari dira maila nazionalean eta nazioartean. Gizarte zibilaren helburua da gure kontsumoak ez eragitea edo ez elikatzea gatazkari planetako beste leku batzuetan; hori dela eta, mineral horien erauzketa eta salmenta arautzeko egiten dituen eskaerek gero eta eragin handiagoa dute.**

Jakin badakigu legedia izate hutsak, besterik gabe, ez duela arazoa konponduko gauetik goizera; baina zer urrats egin behar dituzten erakusten die enpresei, loturak hauts ditzaten gatazken eta gure bizimoldeen edo gailu elektronikoen artean. Legedi bat izanez gero, gainera, gizarte zibilak hura betetzeko eskatu ahal izango die, bai enpresei eta merkatuari, horiek direlako bete beharko dutenak. **Baita lege horiek aplikatzekoak diren estatuei ere, azken finean horiek bermatu behar dutelako betetzen direla.**

Gatazka-mineralen gaiari dagokionez, Amerikako Estatu Batuek egin dute horiei buruzko lehen legedia. 2010ean, "finantza sistemaren erreforma eta pertsona kontsumitzaileak babesteko" lege bat onartu zen, **Dodd Frank izenez ezaguna dena. 1502 atalean, gatazka-mineralak definitzen ditu, eta tantalioaren, wolframaren eta eztauaren (ingelesez, 3T siglez ezagunak) eta urrearen jatorriaren berri emateko obligazioa ezartzen die New Yorkeko burtsan kotizatzen duten enpresa guztiei.** Mineralak Laku Handien eskualdekoak badira, enpresek bermatu behar dute erosketak ez duela finantzatu inolako talde armaturik, eta deskribatu behar dute zer neurri hartu duten bermatzeko premiazko arduraz jokatu dutela mineral horien jatorriari eta zaintza-kateari dagokionez.

Fitxa hau egin den unean, **Europan ez dago gaiari buruzko arauketarik; baina horren zirriborro bat aurkeztu zen 2014an.** Orain eztabaidatzen ari dira, eta hurrengo hilabeteetan onartuko dela aurreikusten da. Zirriborroa egiteko, Karel de Gutch-ek gidatutako batzordeak kontsulta-prozesu bati ekin zion, enpresek eta gizarte zibileko erakundeek beren ekarpenak egin zituzten. Tamalez, ez zuen lortu gizarte zibilak aurkeztzen zituen gai batzuk aintzat hartzea; neurri horiek aukera emango zuten gatazka-mineralak gure bizitzatik bereizteko.

**Arauketaren proposamenak oinarri hau du: ELGEren Premiazko Arduraren Gida, arriskuak aintzat hartzen dituena. Dodd Frank legea eta Europar martxoan aurkeztutako proposamena alderatuz gero, ikusten da mineral berei aplikatzen zaiela. Batean zein bestean, 3T+G mineralei eragiten die.**

Bestetik, desberdintasun batzuk ere badaude. Europako proposamenean, enpresen esku uzten da aplikatzeko edo ez aplikatzeko erabakia; hau da, aplikazioa boluntarioa da. Amerikako Estatu Batuetan, nahitaez aplikatu behar da. Puntu horrek eragiten du kezkarik handiena gizarte zibileko erakundeetan; izan ere, boluntarioa bada, prozedurari entzungor egin diezaiokete enpresek, eta ez litzateke lortuko desagerraraztea gatazka-eremuetako (edo gatazka-arrisku handiko eremuetako) talde armatuen finantziazioa.

Bigarren aldea da Europako proposamena mundu osorako dela; ez dela mugatzen Laku Handien eremura, Dodd Frank legea bezala. Alderdi hori oso ondo baloratu dute gizarte zibileko erakundeek, zeren eta, Kongoko eta Laku Handietako kasua paradigmaticoa den arren, zoritxarrez, beste leku askotan ere finantzatzen edo elikatzen dira gatazkak mineralen edo beste baliabide natural batzuen erauzketa eta salmentaren bidez. Gainera, ikuspuntu horren bidez, saihestu nahi da enpresek mineralak Kongon erosteari uztea; hori gerta baitaiteke Dodd Frank legearen eraginez.

Hirugarren aldea da zirriborroan proposatzen dela minerala (prozesatua izan edo ez) inportatzen duten enpresek jokatu behar dutela Premiazko Arduraz, eta ez burtsan kotizatzen duten enpresa guztiek, Dodd Frank legeak eskatzen duen bezala.

Azkenik, zirriborroa ELGEren Premiazko Arduraren Gidan oinarrituta dago, eta homikuntza-katean gatazka-mineralik egon ez dadin jarraitu behar den prozeduran jartzen du arreta.

Dodd Frank legearen bidea bestelakoa da, sailkapen bat egiten baitu emaitzaren arabera; eta hori arrisksua da, enpresek eskualde horretako minerala erosteari utz diezaioketelako, jatorriaren berri eman beharrik ez izateko.

# ARIKETA-PROPOSAMENA

## ANTOLATU ZURE SINADURA-BILKETA!

Azken urte hauetan ikusi da eragin positiboa duela sinadura-bilketak. Hain zuzen, erakunde handi batzuek, hala nola Amnistia Internazionalak, urteak daramatzate baliabide hori erabiltzen, eta erabaki politikoetan eragitea lortu dute.



**“El poder de tu firma” bideoa ikustera animatzen zaituztegu.**

Lan horren bidez, ikusarazi nahi da sinadura batek zer indar edo botere izan dezakeen pertsoneri eragiten dieten legeak aldatzeko edo pertsona horien eskubideak errespetatu daitezkeen lortzeko.



**Egin ezazue bat ALBOANen egiten dugun sinadura-bilketarekin.**

Utz ezazue zuen helbide elektronikoa kanpainaren webgunean, eta zenbait proposamenen berri emango dizuegu.



**Antola ezazue zuen sinadura-bilketa.**

Horretarako, [www.avaaz.org](http://www.avaaz.org) eta/edo [www.change.org](http://www.change.org) plataformak erabili ditzakezue, zuen kanpainak egiteko.



**Konta iezaguzue nolakoa izan den prozesua, eta zenbat sinadura bildu dituzuen, bai eta zuzendu zareten pertsonen erantzun dizueten eta zer erantzun dizueten.**

Webgune honetan jar dezakezue zuen esperientzia:  
<http://www.tomalosdatos.alboan.org/eu/initiatives>

## INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO BITARTEKOAK



**“Zure sinaduraren indarra” bideoa:**

<https://www.youtube.com/watch?v=Um1PBwQFAcQ>



**Europako Batasunaren proposamena:**

[http://trade.ec.europa.eu/doclib/docs/2014/march/tradoc\\_152227.pdf](http://trade.ec.europa.eu/doclib/docs/2014/march/tradoc_152227.pdf)



**ELGEren Gida:**

<http://www.oecd.org/daf/inv/mne/GuidanceEdition2.pdf>



**Dodd Frank legea:**

<http://www.sec.gov/about/laws/wallstreetreform-cpa.pdf>



**Fairphoneren legediari buruzko atala: [www.fairphone.com](http://www.fairphone.com)**



**Galdera-erantzunak, Europako arauketa-proposamenari eta gatazka-mineralei buruz:**

[http://europa.eu/rapid/press-release\\_MEMO-14-157\\_en.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-14-157_en.htm)



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa  
[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

-en proiektu bat



lortzeagatik

[www.gatazkarikgabekoteknologia.org](http://www.gatazkarikgabekoteknologia.org)